

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Agenda 21eko Foroa 2008ko urriaren 2ko tailerraren akta

Legazpiko udaletxean
18:30etik 20:00etara.

Udan atsedena hartu eta gero, "Mugikortasun iraunkorraren astea" eta Erreka Eguna ospatu ditugu. Ondoren, udazkenari neurria hartu eta, gaur, Legazpiko Agenda 21eko Foroa elkartu da berriro. Eta agerian geratu da parte hartzeko dugun gogoia! Batik bat informazioa emateko bilera izan delako, baina benetan interesgarria!

Ikus dezagun bilerak eman duena!



Zeintzuk? Parte hartu duten pertsonak

Ugaria eta anitza izan da Foroan parte hartu duen pertsona-taldea, agenteak eta erakundeak. Gaurkoan ere, aurrekoetan bezalaxe, ia 30 pertsona elkartu gara; lorpen handia gure Legazpirako!



Eskerrik asko, hauei guztiei:

Bixente Garmendia ♦ Fernando Martínez de Albeniz ♦ Montse Vallejo ♦ Iñaki Mauleon ♦ Ana Manzanos (Domingo Agirre ikastetxea) ♦ M^a Amor (Iratzarri) ♦ Arantxa Ibarreta (Iratzarri) ♦ Begoña Santillan (Iratzarri) ♦ Juncal Fernandez ♦ Manuel Fernandez ♦ Koldobike Olabide ♦ Juan Karlos Altzelai (Harri Urdin Brinkolako Auzo Elkarte) ♦ Fernando Arakama ♦ Martin Gonzalez ♦ Eugenio Gil ♦ Ibon Odriozola ♦ Iker Azurmendi ♦ Ane Odriozola ♦ Jose Luis Cid ♦ Sagrario Diaz ♦ Anastasio Clavo ♦ Jose Ignacio Gil ♦ Arantxa Segurola (Haztegi) ♦ Iñigo Galo ♦ Asier Zaldúa ♦ Sotero Plazaola (Legazpiko alkatea) ♦ Inma Hernández (Agenda 21eko teknikaria) ♦ Iciar eta Zorione (Prometea, SC).
OHARRA: gaur ezin izan dutela etorri adierazi dute Jon Erramun Uribeetxeberriak (Legazpiko zinegotzia) eta Jose Luis Ugartek.

Zertarako? Aztertu diren gaiak, banan-banan

Segidan, banan-banan jasoko ditugu bileran aztertu diren gai garrantzitsuenak. Goazen!

- "Tokiko Agenda 21ean, Udalerri-enpresa Ekintza-planaren udal diagnostikoa" azterketaren aurkezpena.

Abiapuntu gisa, eta paper zuri baten gainean, galdera bat egin diogu Foroari: nola ikusten dugu eta nola antzematen dugu udalerriko ingurumen-errealitatearen bilakaera eta Legazpiko enpresa industrialen ingurumen-portaera?



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Erantzuna, gure ikuspegia, hitz batean labur genezake: "argi-iluna". Foroaren ustez, eskualdeko industria, eta Legazpikoa batik bat, ingurumen-eragina gutxitzeko eta saihesteko neurriak hartzen ari da azkeneko urteotan. Hala ere, ingurumen-kalitatea hobetu egin daiteke hainbat alderditan: oraindik, "kea" dagoenaren sentsazioa jasotzen dugu, Legazpin airearen kalitatea urria denaren sentsazioa; oraindik, gehiegi erabiltzen da autoa lantokira joateko; oraindik, likido kutsagarriak isurtzen dira ibaira; eta oraindik asko hobe daiteke enpresek kanpoaldean dituzten gauzen erabilera (edukiontzia, lehengaien pilaketa, hondakinen kudeaketa desegokia,...).

Ikuspegi hori, erreal al da?; edo, egungo egoera eta gure pertzepzioa ez datoz bat? Galdera hori erantzun nahi izan diogu eta, horretarako, Julen Rekondoren laguntza jaso dugu. Ingurumen-gaietan aditua eta Ingurune enpresako ordezkaria den Julenek, "Tokiko Agenda 21ean, Udalerri-enpresa Ekintza-planaren udal diagnostikoa" azterketaren emaitza nagusiak aurkeztu dizkigu.

Hurrengo laukian, modu laburrean erakutsiko ditugu azterketa horren datu nagusiak. Azterketa osoa ikusi nahi duenak, Legazpiko udaletxeko Agenda 21eko bulegora joan daiteke, bertan baitago ikusgai.

Azterketaren oinarritzko datuak

- **Zertaz ari gara?** Ihobe, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumena kudeatzeko Sozietate Publikoaren bidez Udalsarea 21ek bultzatu eta gidatu duen proiektua da. Proiektu hori hainbat euskal eskualdetan burutu da proiektu pilotu gisa; horietako bat Urola Garaia izan da. Diagnostikoa egitean, Udalsarea 21ek eta Ingurunek zuzenean lan egin dute UGGASArekin (Urola Garaiko Garapen-Agentzia), Urola Garaiko Industrialdearekin eta eskualdeko lau Udalekin (Legazpi, Ezkio-Itsaso, Urretxu eta Zumarraga).
- **Zein da helburua?** Urola Garaia eskualdean garatutako jarduera ekonomiko industrialen ingurumen-egoera aztertzea; tokiko administrazioen eta enpresariaren arteko lankidetzeta-marko batean, enpresak Tokiko Agenda 21eko prozesuetan hobekien integratzea ahalbidetuko duten jarduerak identifikatzea da helburua.

Aztertu diren alderdiak

Hiru izan dira nagusiki aztertu diren alderdiak. Honako hauek:

- **Enpresen legezko egoera:** ea enpresa irekitzeko eta jarduerari ekiteko lizentziak dituzten; ingurumen-legeria bereziaren mende dauden (adibidez, IPPC Europako zuzentaraua),...
- **Enpresen ingurumen-eragina,** ondokoei dagokienez: hondakin arriskutsuen kudeaketa, kokapena (babestutako eremu naturalean kokatuta ote dauden), isuri atmosferikoak (non ematen diren eta airearen kalitatea eskualdean), ustez kutsatuta dauden lur-zoruak eta Urola ibaiko uren kalitatea.
- **Enpresa industrialen jarrera ingurumenarekiko.** Jarrera hori ingurumena kudeatzeko ziurtagiriak (ISO 14001, Ekoscan, EMAS) dauden edo ingurumena hobetzeko borondatezko erabakiak hartu diren ikusita neurtzen da.



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Ondorio nagusiak eta etorkizunerako erronkak

Azterketak eta diagnostikoak emaitzak eman ditu. Horrela, azterketan hainbat lerro estrategikoen proposamenak eskaintzen dira eta horiek izango dira Urola Garaia eskualdean, eta batik bat Legazpin, datozen urteotan lortu beharreko helburu nagusiak. Gure udalerrinari dagokionez, aipatu helburu horiek zehaztasunez aztertu eta zein ekintza-proposamenetan gauzatuko diren ikusi beharko litzateke; ondoren, ekintza horiek lehentasunen arabera sailkatu eta Legazpiko Iraunkortasunerako III. Ekintza-planean sartu.

Zazpi dira Legazpirako proposatu diren lerro estrategikoak:

- **LE-1:** Enpresak irekitzeko eta jarduerari ekiteko udal lizentzien izapidetze legalaren egoera hobetzea.
- **LE-2:** Ingurumen izaerako izapidetze legalaren egoera hobetzea.
- **LE-3:** Enpresak eta udal teknikariak informatzeko, prestatzeko eta sentsibilizatzekeo ekintzak.
- **LE-4:** Hondakin arriskutsuen eta ez arriskutsuen kudeaketa hobetzea.
- **LE-5:** Eskualdeko airearen kalitatea hobetzeko Plana.
- **LE-6:** Tokiko Agenda 21eko prozesuetan, Udalerrri-enpresa proiektuaren jarraipen iraunkorra ziurtatzea.
- **LE-7:** Industriako hondakin-urak ibaira isurtzeak sortzen duen kutsadura txikiagotzea.

Julenen azalpenaren ondoren, Foroak astia izan du galderak eta iruzkinak egiteko, eztabaidatzeko,... Oso aberasgarria izan da! Garrantzitsuak direlako, **gure arreta eta jarduna eskatzen duten hainbat puntu** jasotzen ditugu:

- **Tratamendu desberdinak enpresa handientzat eta txikientzat:** ekarpen gisa, Foroak enpresa txikien egoera azpimarratu beharra dagoela adierazi dio Juleni; izan ere, zaila da enpresa horiei ingurumena hobetzeko neurriak hartu behar dituztela transmititzea. Proposamena: emaitzen aurkezpena zuzenean beraiei ere bidaltzea.
- **Industria-enpresetako teknikariei ingurumen arloko prestakuntza eskaini:** komenigarria izango litzateke, hala nola, industrietako teknikariei ingurumen arloko prestakuntza eskaintzea (batik bat enpresa txikietako teknikariei, zailagoa izango baitute); bestetik, esku-hartzea eskatuko duten jarduketak hobetzeko Udalarekin elkar lana sustatu behar da.
- **Legazpiko ingurumen-errealitatearen bestelako alderdiak** (zuzenean azterketarekin zerikusia ez badute ere):
 - **Txorroneako erreka:** Foroko hainbat kidek ur beltzak bideratu beharra dagoela esan dute, leku horretan usain txarrak sortzen direlako.
 - **Motordun ibilgailuen sarrera librea Urtatzako urtegira:** aukera egongo litzateke sarrera hori arautu edo mugatzeko? Horrela, kutsadura arazoak saihestuko lirateke (adibidez, olioak,...).
 - **Ibaiertzeko flora pasealekua jaten ari da:** pasealekua jaten ari den ibaiertzeko flora "garbitzea" eskatu da.

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

● Bestelako oharrak

Ia arratsaldeko zortziak direnean (aurreko debatea bizia izan baita), denbora pixka bat hartu dugu Inmak adierazteko dituen hainbat ohar interesgarri entzuteko. Horien berri jaso dugu!

- **INMA Proiektua (Haurtzaroa eta ingurumena)**

Inmak Legazpiko Udalak "Haurtzaroa eta Ingurumena" izeneko proiektuan hartzen duela parte ekarri du gogora eta orain arte jasotako ondorioak biltzen dituen orri informatiboa banatu du bertaratutakoaren artean. Emaitzak ikusita, garbi dago gune industrialean bizi garela (airearen kalitatea, urarena,...), baina, hori bai, ez dira muga legalak gainditzen (kasu puntualetan izan ezik).

- **Datorren urriaren 12an "Aizkorrin barrena" mendi martxa izango da eta bertan parte hartzera animatzen dira bertaratutakoak.**

Legazpi Seguratik orain dela 400 urte bereizi zela ospatzen ari gara aurten eta, beste ekintzen artean, datorren urriaren 12an Aizkorrin barrena mendi martxa bat egingo da. Egun hori antolatzeke borondatezkoen laguntza behar da (hornidura-guneetarako, muntaketa egiteko,..). Prest dauden pertsonen Inmari eman behar diote izena.

- **Argitalpen berria birziklatutako paperean:**

Udalak bere komunikazioetan, argitalpenetan,... %100 paper birziklatua erabiliko duela hitz eman du eta horren adibide dugu atera berri duen "Eliza Legazpiko historian" liburua. Garbi ikus dezakegu kalitateak ingurumenarekiko errespetuarekin bat egin dezakeela.

- **Legazpiko Iraunkortasunerako III. Ekintza-plana, Osoko Bilkuran onartzeko da laster:**

Inmak azaldu duenez, Plana bukatuta dago eta euskaratzen ari da. Prest dagoenean, Agenda 21eko batzordean aurkeztuko da, ondoren Osoko Bilkurara bidaltzeko bertan onartua izan dadin (ahal bada hilabete honetan egingo da).

- **Domingo Agirre eskolako jangela:**

Eskolako gurasoen elkarteko ordezkari Ana Manzanos herritarrak jangelaren zuzeneko kudeaketa mantentzeko egin den ahaleginaren berri eman du (Udalaren eta bestelako erakundeekin laguntzarekin) baina ez da ezer lortu. Auzolagun enpresa izango da jangela kudeatuko duena, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailak ezarritako irizpideak jarraituz.

Hurrengo bilera?

Gure urteko planarekin jarraituz, azaroaren 6an elkartuko gara berriro. Ordurako, Legazpiko Iraunkortasunerako III. Ekintza-plana onartuta izatea espero dugu (zehaztasunez kontsultatzeko aukera izan dezazuen!) eta, horrela, erronka eta ekintza berriekin has gaitezke! Ordura arte, goza ezazue udazkenaz eta bere aireaz, koloreez eta musikaz!!

Eskerrik asko!!!